



Nolako euskal kultura XXI. mendean ?

Baiona – Uztaritze
1999ko azaroaren 5a eta 6a

Lantaldeen bildumak

Euskal kultur erakundeak argitaratuak
Lota – PK 6 - 64480 Uztaritze
Tel. 0 (033) 5 59 93 25 25

www.eke.org

Paperezko ale batean oinarritutako kopia numerikoa
Lantaldeen argazkiak:
<http://www.eke.org/eu/eke/dokumentuak/nolako-euskal-kultura-xxi-mendean>

Nun zer

| | |
|--|----|
| Pantxoa Etchegoin-en sar-hitza | 5 |
| 1. lan-taldea : Zer deitzen dugu euskal kultura ?..... | 7 |
| 2. lan-taldea : Euskal kultura eta hiritartasuna | 13 |
| 3. lan-taldea : Euskal kulturaren arraberritzeko baldintzak..... | 17 |
| 4. lan-taldea : Euskal kultura eta Euskal Herriko ekonomia | 21 |
| Chantal Mornet-ek elkarteeri egin galdeketaren emaitzak..... | 25 |
| Lan-taldeen bilduma Michel Veunac-ek eginik | 35 |
| Lan-taldeen bilduma Jean-Baptiste Etcheverry-k eginik | 39 |
| Pantxoa Etchegoin-en azken hitza..... | 41 |

Eskerrak

1999ko azaroaren 5 eta 6eko gogoeta egunak ezin hobeki iragan dira bai Euskal Herriko Garapen Kontseilua, bai jende berezi batzuen laguntzari esker:

- ostirale arratseko mintzaldi-eztabaidarentzat :
Antoine Spire, Eduardo Manet, Lurdes Arizpe, Eguzki Urteaga, Francis Jaureguiberry, Erramun Bachoc.
- larunbateko lantaldeentzat :
Mixel Bidegain, Francis Jaureguiberry, Xabier Itçaina, Jeanne Kreckelbergh, Eguzki Urteaga, Peio Etcheverry-Aintchart, Serge Labescau, Jean-Baptiste Etcheverry, Philippe Mayte, Battitta Boloquy, Noël Elorga, Chantal Mornet, Michel Veunac.
- lan-taldeen kudeaketa orokorarentzat eta txosten hunen egituratzearentzat : Anne Pagola.
- itzulpenarentzat eta azken irakurketarentzat : Kattalin Totorika.

Laguntzaile hauei guzietan gure eskerrik beroenak bihurtzen dizkiegu.

1999ko azaroaren 5ean Baionako merkatal ganbaran iragan « Nortasuna eta unibertsaltasuna : nortasuna zaintzen ahal ote da oraino mundializazioaren garai an ? » mintzaldi-eztabaidaren transkripzioa eta grabaketa eginak izan dira.

Erdietsi nahi dutenak Euskal Kultur Erakundearekin harremanetan sar daitezke.

Sar-hitza

"Nolako euskal kultura XXI. mendean?"

Zergatik gogoetaldi hori ?

Pantxo ETCHEGOIN,

Euskal kultur erakundeko zuzendariak eginik

Euskal kultur erakundearen barne-begirada

2000. urtean, Euskal kultur erakundeak 10 urte beteko ditu. Ez da dudarik azken urte hauetan legezketasuna erdietsi dugula. Orain, helburu berriak finkatu behar ditugu, geroari begira gure lekua asmatuz, etorkizuna aurrez ikusten ikasiz, gure ekintzak gizarteak eta ekonomiak dakartzaten aldaketetara egokituz eta munduaren etengabeko mugimenduak hurbiletik segituz.

Bai Euskal kultur erakundearentzat, bai ekonomia, sozial eta politika munduko eragileentzat, bai eta euskal kultura egunero bizi duten gizon-emazteentzat ere biziki garrantzitsua da euskara eta euskal kulturari dagokien zenbait norabide elgarrekin zehaztea. Eskutan ditugun abantailak eta indarrak balia ditzagula munduan eta gure ingurumenean gertatzen diren aldaketei aurre egiteko. Gazteek bereziki lehenak izan behar dute galdera hauei erantzuteko : "Zer nolako tokia izanen dute euskarak eta euskal kulturak hemendik hamar edo hogeitertara ? Nola sartuko dira hirira, nola hedatuko dira mundura eta zein toki erdietsiko dute teknologi berrien eremuan, hori guzia arima galdu gabe ? Gure arteak eta gure kulturak bultza ote dezakete garapen ekonomikoa eta soziala ?"

Gogoetaldiaren helburuak

- Gogoetaldi orokor hau abiatu dugu lehenik Euskal Herriaren alde (kultura, sozial eta ekonomia mailan) ari direnen arteko harremanen azkartzeko eta bakoitzak bertzea hobeki ezagutzeko,
- Gerorako lan-ardatz batzuen finkatzeko bai elkarreentzat, bai Euskal Kultur Erakundearentzat ere,

Lan-taldeetan egin gogoetei esker zenbait ardatzen aztertzeke, datozen hilabeteetan sakondu ondoan, ekintza zehatz bihur daitezten.

1. lan-taldea :

"Zer da euskal kultura ?"

Animatzailea : Mixel Bidegain

Behatzaile-berriemailea : Francis Jaureguiberry

Idazkaria : Xabier Itçaina

Francis Jaureguiberry-k egin bilduma, Xabier Itçaina-k osatua

Gehien harritu nauena lan-talde honetan, parte hartzaileen aditzeko gaitasuna izan da. Egia erran, hogeitamar pertonez osaturiko biltzar batean, ez da usu aurkitzen halako kalitate handiko entzumenik. Hitzaldien erdia euskaraz emana izan da, gaineratekoa frantsesez. Bestalde, errespetu handia sumatu dut hitza hartu dutenengan, euskaraz hitz egin dezaten ala frantsesez. Ez dut errespetu bera sentitu, bezperan, "Nortasuna eta Unibertsaltasuna" izeneko bardako mintzaldiaren kari. Erran behar da euskaraz hitz egin duen pertsona bakoitzak segidan laburpen bat egin duela frantsesez. Bertan izan diren pertsonak euskal kulturari atxikiak direla sentitu dut ere : nabari da aipatu gaiek zuzenki hunkitzen dituztela, baina bide berean, distantzia hartzeko gai direla, haien bizitza, engaiamendu eta mobilizazioari begira. Kanpoko begirada horri esker, solasaldiak biziki emankorrak izan dira.

Euskara ote da euskal kulturaren oinarria ?

Pertsona batek oroitarazi digu euskaraz, Euskalduna "euskara duena" dela. Seinale bat da. Alta, azpimarratu behar da hemengo biztanle anitz euskaldun sentitzen dela errotik, nahiz euskara ez ezagutu. Bistakoa da zaila dela euskal kultura definitzea euskaratik kanpo. Hala ere, batzuk diotenez, euskararen jakitea ez da beharrezkoa dantzatzeko, zizel-obrak sortzeko, pilotan jokatzeko edo marmitako on baten prestatzeko. Batzuren iritziz, kreazioa egiteko "euskal modu" bat bada, ez baitezpada euskarari lotua. Aipa genitzake ere euskara jakin gabe euskal kantuak gogoz eta bihotzez kantatzen dituzten pertsonak. Boz horiek entzutean, kanpotiarrek diote : "A, Euskaldun horiek, zein ongi kantatzen duten !" Eta bistan dena, "euskara ez duten" pertsona horiek Euskaldun sentitzen dira. Horra hausnarketarako gai interesgarri bat. Euskal kulturaren beste alor batzuk, "folklore" izenburupean bilduak direnek, dudak sortu dituzte gure taldean.

Hizkuntza bat ez da bakarrik bereaz mintzo : erreferentzia, balore eta arau sistema berezi batera eramaten gaitu. Pertsona baten iritziz, hizkuntza nortasuna eta nortasun geografikoa ez dira nahasi behar, hau ez baita derrigorrez euskararen kulturari lotua.

Taldeko bertze batek erran digu 40 urtez bizi izan dela euskara jakin gabe : hala ere, Euskaldun sentitzen zen, errotik. Hizkuntza propiorik ez duten zenbait kulturaren etsenpluak emanak izan dira : Quebectarrak frantsesez mintzatzen dira, hala ere kultura quebectarra dute; Irlandarrak ingelesez mintzatzen dira, kultura irlandarra izan arren. Horrela, gauzak uste baino korapilatsuak dira. Alta, gure lan-taldean parte hartu dutenei gostatu zaie euskal kultura definitzea euskara kontutan hartu gabe.

Beste lekukotasun bat aipatu nahi nuke, biziki hunkigarria izan baita. Pertsona horrek adierazi digu bere burua baztertu izan duela euskara ez zekielako. Dakigunez, gure arbasoak ahalgetu ziren euskara ama-hizkuntza edukitzeaz. Eskolak, administrazioak, eta frantses estatuak bereziki Euskaldun izateagatik apaltzen zituen. Belaunaldi haiei frantsesa ez jakitea zitzaien minbera. Eta gaur, pertsona horrek erraten digu zaila zaiola euskara ez jakitea, Euskaldun sentitzen baita. Adierazgarria da : erran nahi du, Estatuak behar bada euskara hil duela - edo bederen larriki zauritu -, baina ez du euskaraz mintzatzeko nahikeria akabatu.

Emazte baten hitzek hunkitu naute ere : euskaldun berria denez, eta kontatu digu euskara ikasteko bidea euskal kulturari inimiziatzat bizi izan duela. Nahiz euskal kultura jadanik ongi ezagutu, euskaraz bizitzeak hodeiertze berriak ireki dizkio. Euskarak harreman intimo bat sortu du euskal kultura eta pertsona horren artean. Inimizazioa, euskara ikasteko zailtasun handiak, eta denbora berean aurkikuntza eta ezagutzen ez zituen ererenuen ezagutzeko bozkarioa.

Beste pertsona batek ohartarazi du gogoan daukagun euskararen irudia eta hizkuntzaren errealitatea atsulutuki bereizi behar direla.

Euskarari eman garrantzia gogoan daukagun irudiak sortzen du. Teorien sortzaileek euskara baino beste hizkuntzak baliatu dituzte haien lanak ezagutarazteko. Euskara irudi gisa, ez daiteke inola ere bizi intimoaren islada izan. Hauxe erratea : "Euskal kultura, euskaraz erraten dena da", gezur bat da ikuspegi kolektibo batetik. Errealitatea eta irudiaren arteko bereizketaz kontzienteak izan behar dugu.

"Egitasmo" hitza orduan agertu da eztabaidan. Gaur egun, ez da "inkontzienteki" hitz egiten euskaraz, orain dela 50 edo 60 urte bezala. Euskara ez da pasiboki ikasten, zenbait familietan ezik, eta familia haietan ere segur naiz gurasoek kontzienteki hautatu dutela euskaraz mintzatea seme-alabekin. Hautua baita edo hobeki errateko, nahikaria. Euskara seme-alabei transmititzea garrantzi handiko ardura da, desafio bat geroari begira : erran nahi du konflantza dugula euskararen etorkizunean, eta baitezpadakoa zaigula euskara, biziaren sinonimoa baita. Hain zuzen, "bizia" hitza maiz agertu da lekukotasunetan. Nahikeria, biziarekin bat eginez, Euskaldun guzientzat funtsezkoa da.

Beste elementu bat azpimarratua izan da, hau da, hemengo kultura nahitaez frantsesa dela. Euskaldun zahar batek eman digu bere lekukotasuna, bere "erro hauskorak" aipatuz. Ematen zuen ez zela bere nortasunez seguru. Bistan dena, herrialde xehatu, zapaldu batean gaude, bi kulturen artean zatikatua. Hauskortasun horri aurre egiteko, aterabide bakarra nahikeria da. Desioa eta nahia baitezpadakoak dira, eskaera sozialarekin batera.

"Hainbeste ahalegin egin behar euskaraz mintzatu ahal izateko, ezinjasana da", erran digu pertsona batek. Ez da batere normala etengabeko borroka eramatea geure hizkuntza baliatu ahal izateko. Egoera historiko berezi hori hizkuntzen arteko indar joko baten ondorioa da eta horrekin amaitzeko, militantismoa ezinbestekoa da. Baina ezin diegu eskatu gure ondorengoei gu bezain militanteak izatea, eskaera hori ez bait litzateke normala.

Denbora guzian, ikuspuntuak elgar osatzen duten bi iritziren artean kulunkatu dira : batzuk azpimarratu dute hizkuntza bat aukeratzea hautu pertsonala dela, bestek hautu hori ingurumen politiko batean kokatzen zutelarik, hautu soziala eta kolektiboa aipatuz. Gizarte mailan,

2. lan-taldea :

"Euskal kultura eta hirigintza"

Animatzailea : Jeanne Kreckelbergh
Behatzaile-berriemailea : Eguzki Urteaga
Idazkaria : Peio Etcheverry Aintchart

Eguzki Urteagak egin bilduma

Francis Jaureguiberry bezala, eztabaidan parte hartu dutenen azterketarako gaitasunak nahiz elkartrukatzeko eta besteengandik ikasteko nahiak harritu naute. Konbentzita naiz lan egiteko molde horrek gero gorpuztuko diren ideiak eta proposamenak sortarazteko aukera ematen duela. Hain zuzen, ideia horren inguruan osatu dugu gure hausnarketa, euskal kulturak hirian aurkitzen dituen arazoak azalduz, eta aterabideak proposatuz egoera hobetzeko asmoz.

Zazpi arazo - egoera

1 - Kultura eta giza aniztasuna

Aniztasuna ekarpena bada ere, kulturalki aberasgarria, ez dugu ahanzi behar zenbait arazo sortzen duela, euskara eta euskal kulturaren integrazioa eta bereganatzeari lotuak. Hori dela eta, instituzioek eta elkarteek ezin dute segitu lehengo moduan jokatzeko, biztanlegoak askoz ere homogeneoak zirenean. Kultura menderatzaileen eta kultura mendratuen arteko indar jokoak aipatuak izan dira, bai eta hiriak duen "zapaltzaile" jokaera, aniztasuna ber-moldatzen eta nahasten duelarik, hiritar hutsa den ekoizpen berri bat osatzeko.

2 - Higikortasuna

Hirian, eremu higikorretan bizi gara. Migrazio mugimendu inportanteak dira bizi lekuen eta lan tokien artean, eta bidaia bizitzaren osagai dugu. Fenomeno horren ondorioak hauek izan daitezke : deserrotze egoera, edo lurralde, kultura eta hizkuntza batekin identifikatzeko zailtasuna. Hori guztiak du jendea bultzatzen komunitatea eta auzoaren historia hobeto ezagutzera.

3 - Instituzioak

Aho batez taldeko kideek azpimarratu dute instituzioen parte hartze eskasa. Hizkuntza eskaintza bereziki murriztua da : administrazioa ez da behartua zerbitzu publikoa euskaraz eskaintzera. Salatzea ere, jendearen "herabetasuna" zerbitzu publikoen aurrean : euskararen erabilpenari dagokionez, Euskaldunak ez dira ausartzen haien eskubideen errespetua inposatzera. Aldi berean, instituzioekin dagoen komunikazio eta elkarlan eskasa salatu dute taldekideek. Gehienetan elkarteek ezin dute harreman emankorrik sortu tokiko hautetsiekin. Horregatik, egitasmo konkritu batzuk tratatuak dira tokiko instituzioetan.

4 - Gizartearen buru-argitasuna

Gizarteak ez du instituzioen laguntzarik espero. Hori dela eta, elkarte eta giza-mugimenduan parte hartzen dutenek entseiatzen dira estrategien eratzeko, eta aterabideak elgarrekin aurkitzen.

5 - Bazterketa

Bazterketa soziala aipatzen dugu usu. Ez dugu ahanzi behar "publiko" batzuk euskal kulturatik baztertuak direla bi arrazoinengatik : jatorri sozial xumea daukatenez, zaila zaie kultura munduan sartzea ; alfabetatu gabekoak diren ez, euskal kulturatik eta ekintza batzuetatik baztertuak sentitzen dira. Ez gara oraindik aski kontzienteak euskal kulturari sartzeko ate ezberdinak badirela, euskara pasabide bakarra ez izanik.

6 - Definizio arazoa

Politika publikoak, lankidetzak eta ekintza konkretuak alhan ezarri baino lehen, jakin behar dugu euskal kultura definitzen. Zehaztu behar dugu euskarak duen lekua gure kulturen, beste kulturek har dezaketzen tokia, eta nola antolatu osagai guzti horiek. Nabari da definizio arazo bat dugula aide horretatik.

7 - Irudi arazoa

Maiz, euskal kulturak eta euskarak irudi guttietsia pairatu behar dute. Frantsesa eta ingelesa modernitatearen hizkuntzat hartuak dira, euskara familia, etxeko giroa eta ohiturari lotua delarik, iraganaren mintzoa baizik ez balitz bezala, Aldiberean, jokaerak aldatzen ari dira, zenbait kultur ekintzen bitartez. Azpimarratzekoa da aldaketa horiek MABeko hiri handietan nahiz barnekaldeko herrietan gertatzen direla.

Zazpi aterabide :

Aterabideek ez diete beti erantzun zuzenik ekartzen gorago aipatu arazoei. Baina gogoetatzeko bideak dira, arreta handiz aztertu behar ditugunak.

1 - Jokaerak aldatu

Ez da nahikoa euskara irakastea. Euskara eguneroko bizian erabili behar da. Euskal kultura egunero eta etengabe biziarazi nahi badugu, kontzientzia handia izan behar dugu alde horretatik.

Beste ezaugarri bat kontutan hartu behar dugu ere, hau da, giza-kultura egoera ezberdinak ditugula Euskal Herrian zehar. Animatzaile izan aitzin, demografiaz zerbait jakin behar genuke eta instituzioetatik ez den-dena igurikatzen ikasi. Kultur aniztasuna kontutan hartzea, elgar aditzea da ere hizkuntza ezberdinak - euskara, berberea eta portugesa, besteak beste - Baionako herri-aldizkarian agertzeko, mintzakidego horien historia bertan azaltzeko, egiazko informazioa aniztasunaren lekuko izan dadin.

2 - Euskal kulturen instituzioak eman

Aterabidea Euskal kultur erakundearen sendotzetik pasa daiteke, bai eta instituzio berrien eraketetik ere (Euskal departamendua, Hizkuntza Kontseilua). Marko instituzionala baitezpadakoa da, legezkatzea eta ahalmen berriak erdiesteko bide bakarra baita.

3 - Kulturgintzan ari direnak profesionalizatu

Helburua animatzaileen eta sortzaileen formakuntza segurtatzea da, eta horretarako kanpoko profesionalen gaitasunak eta esperientziak baliatu behar dira. Azpimarratzekoa da Euskal kultur erakundeak formakuntza eskaera anitz errezebitzen duela.

Baina kulturarako formakuntzarekin batera, ezinbestekoa da kulturarako hezkuntza egitea, folklorizazioan ez erortzeko. Tolerantzia, irekidura eta gizatasun baloreak eta arauak irakatsi behar dira. Bide berean, gaurko tresna egokiak eta profesionalak baliatu behar dira, Bilboko Kafe Antzokiak baliatzen dituenak bezalakoak. Hala ere, ez dugu mimetismoaren zepoan erori behar : halako proiektu batek helbura zehatza eta ahalmen egokiak behar ditu.

4 - Partaidetzak garatu

Konturatu gara askotan sail berean ari diren elkarteek elkartzen direla proiektuak elgarrekin eramateko. Mugatuegi den mundu hori zabaltzea ezinbestekoa da, Euskal elkarten saretik atera behar da borondate guziekin lan egiteko. Sorkuntza sustatu behar da ere kultur menderatzaileen ekoizpenak ez jasateko. Egiazko kultura politika ez baita bortxaz inposatzen. Euskal Herriko kultur elkarte eta erakunde guzien gidaliburu baten proiektua aipatua izan da. Elkarten arteko elkarlanaz kontatu duguna aplikatzen ahal diogu elkarten eta instituzioen arteko partaidetzari, eta are gehiago instituzioen eta kultura egiten dutenen arteko lankidetzari. Biziki inportantea da Euskal kultur erakundea bezalako instituzioek sustengu eta laguntza eskasagatik nekez ateratzen diren proiektuak bultzatzen.

5 - Bertako egituretan sartu

Gaur egun ez da aski eskaerak kanpotik egitea. Zerbitzu publikoetan eta tokiko erakundeetan sartu behar da, gauzak barnetik aldatzeko asmoz. Pertsona batek azpimarratu du poderea gureganatu behar dugula, herriko etxeetan ardurak hartuz, auzapez edo kontseilari izanez, Hezkuntza Nazionalarekin ariz, besteak beste. Kasu batzuk frogatzen dutenez, proiektuak aitzinarazteko modurik konkretuena da : seinalatze elebidunaren adibidea aipatzen badugu, erran dezakegu aitzinamendu nabarmenak gertatu direla. Gauza bera zenbait elkarteren kasuan : garapen ohargarria ezagutu dute instituzioetatik ahalmen egokiak hartu dituztelarik.

6 - Topaketak eta pilotu-batzordeak antolatu

Topaketen helburua sail ezberdinetako jendea (ekonomia, kultura, soziala, politika...) elkartzea litzateke, eztabaidak akuilatzeke, pertsonen arteko harremanak sortzeko, eta euskararen aldeko proiektuak aitzinarazteko asmoz. Pilotu-batzordeak antolatzea ere aipatua izan da. Batzorde horiek, topaketetan edo beste nonbait eratutako zenbait proiektu konkreturi laguntza ekarriko liekete, denbora berean instituzioek eta elkarteek egin elkarlana koordinatuz.

7 - Tokiko esperientziak balorizatu

Ez da nahikoa hego Euskal Herrian edo beste nonbait sortu ereduak iparraldera ekartzea. Proiektuarekin zer ikusia duen jendeari galdetu behar zaio esperientziak, ideiak eta gogoak azaltzea : proiektuak aitzinarazteko modurik onena da. Baina zer nahi gisaz, ezinbestekoa da ekintzen nolakotasuna zehaztea.

3. lan-taldea :

**"Euskal kulturaren
arraberritzeko baldintzak"**

Animatzailea : Serge Labescau

Behatzaile-berriemailea : Jean-Baptiste Etcheverry

Idazkaria : Philippe Mayte

Jean-Baptiste Etcheverry-k egin bilduma

Nola segurta kultur egitasmoen kausitzea ?

"Kausitze" hitza bera ez da onartua izan. Hitz eztabaidak izan ditugu (lehengoa eta gaurkoa, amaturgoa eta profesionaltasuna, bai eta ideia eztabaidak ere (arraberritzea, proiektzioa eta komunikazioaren inguruan). Horiek guziak taldea entseiatu delako, nire gustuko, bere buruaren definitzen. Batzuk diote : "profesionalizazioa behar dugu bizirik irauteko eta garatzeko". Besteek aldiz : "Galtzen badugu artea eta kulturaren "herrikoitasuna", nora goaz?" Betiko eztabaida, erantzunik gabekoa. Eta hainbat hobe, zeren erantzuna galderaren heriotzaren seinale izan bailiteke.

Oztopoak

Gero, lan-taldeak aipatu ditu artistek bizitzeko, onartuak eta ezagutuak izateko aurkitzen dituzten oztopoak.

Kanpoko oztopoak

Oztopo politikoak, kultura merkatuak inposatzen duen hertsadura, bai eta komunikabideek oraindik ezagutuak ez diren kultur ekintzak, obrak edo artistei buruz erakusten duten interes eskasa aipatuak izan dira. Horrela, euskal mundu tikiak ematen du ahalmen eta baimen guziak dituen "Goliath" baten aurka borrokatzen dela.

Barneko oztopoak

- Euskararen egoera larria

Ez da dudarik gure hizkuntzaren arazoez eragin handia dutela gure kulturaren garapen, egituraketa eta antolaketa politikoan. Euskal antzerkiaren kasuan adibidez, nola erakarri publiko berri bat hizkuntza arriskutan bada ? Ez da posible. Ekintza artistiko batzuk zigortuak dira hizkuntzaren aliuleziagatik. Beraz artista batzu kanpora joaten dira, bestek entseiatzen dutelarik frantsesez edo gaztelaniaz aritzea. Beharrik, musika bezalako beste arte batzu unibertsalagoak dira.

- Artisten arteko tentsioak

Azpimarratua izan da euskal publikoa - artistak barne - "bihotz-gogorrekoa" dela euskal artisten ekoizpenarentzat. Artistek berek aitortzen dute harreman gutti dutela haien artean. Tirabira horiek lankidetzaz eta elkarlan eskasa dute ondorio. Herri honetan artisten arteko harreman sare positiboago bat garatu behar genuke.

- Harreman eskasa beste herrialdetako eta baieztatuak diren artistekin

Harreman horiek euskal artistak lagun litzakete beren talenduak garatzen, eta euskal kultura hobeki hedatzen.

- Kritika eskasa

Nahiz Euskaldunen arteko kritika gogorra izan, erran dezakegu egiazko kritika, kritika profesionala, eskas dugula hemen. Alta, erran gabe doa oso baliagarria izan litekeela.

Helburuen ulermen eskasa

Funtsean zergatik egiten dugu artea, izan dadin dantza, kantua edo arte plastikoak ? Funtzio kritiko bat segurtatzeko gutti mugitzen den gizarte batean ? Zein da artearen helburua : ideal baten zerbitzuko izatea ? herrialde baten izenean mintzatzea ? plazerra hartzea ala "tripan" duguna ateratzea ? Galdera guzi hauek erantzunik gabe gelditu dira.

- Hedapen arazoa

Norentzat eta norekin hedatu behar dugu euskal kultura ? Eskoletan lan egiteko, gisa hartako gaitasunak behar dira, bai eta disponibilitate handia ere. Barnealdean, hegoaldean, Frantzia osoan hedapen esperientziak izan dituztenen lekukotasunak entzun ditugu. Horiek guziek frogatzen dute hedapena ez dela batere antolatua gaur egun Euskal Herrian.

- Gela guttiegi

Bistan dena, taldeko kideek behin eta berriz erran dute gela guttiegi dela ipar Euskal Herrian. Bestalde, dauden gelak betetzen ote dira ?

- Agente sare bat antolatu

Gaur egun famatuak diren artista batzuren kasuek - Luis Llach-enak adibidez - erakutsi digute "erreusitu" dutenek, beren nortasuna herritik kanpo ezagutaraztea lortu dutenek agenteak dituztela. Zergatik ez sortu euskal artisten promozioa kanpoan segurtatuko lukeen agentzia bat ? Halako proiektu bat muntatzen ari omen da ipar Euskal Herrian.

Aterabideak

- Hizkuntzaren aide aritzea

Hizkuntza sustatzeko ekintzak asmatzea edo asmatzen segitzea : AEKren lana etsenpluztat hartua izan da.

Artisten arteko elkarrizketak sortzea

Gaur abiatu dugun lana segitu behar dugu, kultura biziarazi dutenen arteko topaketak eta solasaldiak sortuz eta garatuz.

Irekidura

Guk baino hobeto erreusitzen dutenei ireki behar dugu, haien esperientziak bahatuz eta egokituz.

Partaidetzak garatzea

Akitaniako Kontseiluko ordezkari batek hitza harru du partaidetzaren garrantzia adierazteko. Zoritxarrez, partaidetza behar dugunean bakarrik baliatzen dugu, aterabide iturritzat erabil genezakeela ahantziz.

Sail batzuk egituratzea

Idea batzuk atera dira, hala nola euskal kantuarentzako eskola baten proiektua edo lanbide berrietarako formakuntzen antolaketa.

Kanpoko iendea erakartzea

Publiko berriak festibalen bidez hunki ditzakegu. Bestalde, euskal kultura esportatzen ikasi behar dugu ere (zergatik ez antolatu "euskal astea" Parisen, Britainiarrek egiten duten moduan).

Gogoeta hauek "defizit" bat dagoela argi erakusten dute. Aldiberean, aterabideak agertzen dira, pertsonalak, teknikoak edo politikoak, nahiz politika biziki gutti azaldu den eztabaidetan.

4. lan-taldea :

**"Euskal kultura eta
Euskal Herriko ekonomia"**

**Animatzailea : Battitta Boloquy
Behatzaile-berriemailea : Noël Elorga
Idazkaria : Jakes Larre**

Noël Elorga-k egin bilduma

Eztabaida emankorra izan dugu. Taldea hogeit hamar pertsonaz osatua zen, haien artean zenbait aurpegi berri, usaian halako biltzarretan ikusten ez ditugunak. Horrek argi erakusten du nahitaez herri honetan nortasun bilaketa bat badela, bai eta behar bada "tabu" batzuren demistifikazioa ere.

Zer itxura du Euskal Herriak kanpoari buruz, mundu ekonomikoan ?

Hor, denak ados ginen erraiteko Euskal Herriak baduela nortasun sendo bat, hizkuntzan eta hizkuntzak sortu kultur an oinarritua, eta balore bereziak dituen : familia baloreak, hitzaren garrantzia, jende langilea eta leiala...

Irudi horrek bultzatzen ote ditu kanpoko enpresariak hemen finkatzera ?

Ez da errana. Baina nonbait, modu inkontziente batean, nortasun horrek laguntza ekartzen du kanpoko norbaitek nahi duelarik hemen finkatu. Baina ez da dena horretan. Egia erran, kanpoko enpresari batek nahi duelarik hemen finkatu, lau puntu hauek aztertzen ditu :

- Euskal Herriak duen *irekidura fisikoa* kanpoari buruz : autobideak, aireportuak, kableak...

- *Laguntzak* : kanpoko enpresa batek hemen finkatzeko eskuratzen ahal dituen laguntzak, bai diru aldetik, bai lur aldetik...

- *Unibertitate eta merkatuaren hurbiltasuna* : hemen finkatua den enpresak zer merkatu hunkituko duen

- *Ingurugiro soziala.*

Ingurumen ekologikoa ere aipatu dugu.

Baionako ospitaleko zuzendariak ohartarazi du bere eritegian 150 pertsonen batxilergoa + 10 dutela : kirurgilariak eta goi mailako medikuak dira. Haien kalitatea bizi kalitatea premiatsua da. Erran nahi baita gehien interesatzen zaiena kirola egitea eta denbora ongi pasatzea dela, kultura azkarra daukan ingurumen batean.

Zerk bultzatzen ditu euskaldunak hemen finkatzen eta hemen enpresak sortzen ?

Hor izan ditugu bi lekukotasun : Ramuntxo Camblong-ena, eta Beñat Etchart-ena. Biak barnekaldeko semeak dira. Ramuntxo Camblong, ikasketak egin eta, Parisera joan zen, baina bere tripa barnean sentitu zuen dei bat : "ni euskalduna naiz, beraz nire aitak egin duena bere

baserriarekin, nik ere nire moduan egin dezaket Euskal Herrian finkatuz, Euskal Herria lagunduz". Horrela zen etorri hona eta kooperatibak bultzatu zituen. Beste kasua oso ezberdina da : Algeriako gerla egin eta, Beñat Etchart-ek ez zuen hautarik : bere aita hargina zen eta haren segida hartu zuen. Gero, lortu du Euskal Herri bameko enpresarik handiena eraikitzea. Bai horiek eta bai beste batzuk ados ziren erraiteko euskaldun sentitze horrek ematen duela indar berezi bat hemen finkatzeko eta hemen zerbait egiteko.

Gure nortasunak gehigarri bat ekar dezake gure salmenta kanpoari buruz bultzatzeko ?

Hor ez dugu erdi erantzuna baizik eman. Argi da laborantzatik heldu ekoizpenetan, euskal nortasuna baliatzen dugula eta lagungarri dela. Aldudeko Oteiza eta Donibane Garaziko Branaren kasuak aipatuak izan dira, euskal nortasuna baliatu baitute haien ekoizpena kanpoari buruz saltzeko. Beste ekoizpenentzat, iduri du nortasunaren eragina ez dela hain nabarmena.

Ekonomiak euskal kultura lagundu behar ote du eta nota ?

Jendea zirikatzeke, bota dut nik senditzen nuela erreka handi bat kultura eta ekonomiaren artean Euskal Herrian. Eta erantzuna izan da gauzak ari direla aldatzen eta orain badela hurbilketa bat.

Gero, proposamen batzuk atera dira :

- Hoteletan, kanpinetan, turistei kobratzen dieten "taxe de sejour" delakoa erabilia izan dadin euskal kulturaren laguntzeko.
- Batzuek uste dute "taxe professionnelle" delakoa ere horrela balia daitekeela, baina iduri luke hor badela, teknika aldetik, zailtasun gehiago.

Beste fenomeno batez konturatu gara : gaur egungo belaunaldientzat, euskal kultura ez dela aski motibagarria enpresak hemen sortzeko. Har dezagun Bidarteko Izarbel lantegi "hazitegia" : bertako 21 enpresak sortu dituzten gazteak kanpotik etorriak dira. Hor lan asko dugu egiteko, gazteek bat egin dezaten haien erroekin.

Baionako ospitalea eskualde honetako lehen enplegatzailea dugu. Alde batetik, hemengo ekonomiari begira, etsigarria da jakitea podere publikoek diruz lagundutako zerbitzu batek dituela enplegu gehienak sortzen. Horrek frogatzen du dinamika eskasa dagoela hemen. Hala ere, ipar Euskal Herrian dauzkagun informatika, multimedia eta osasun sailak emankorrak dira geroari begira, eta hona lan egitera erakartzen duten jendeak goi mailako bizi kalitatea eskatzen du. Hain zuzen, eskaerari erantzuteko gai gaude bizi kalitatea, ingurumena, kirolak, eta euskal kultura eskainiz.

Batzuk adierazi dute hemengo hautetsiak handinahigabekoak direla ipar Euskal Herria MAB eskualdean kokatzen dutenean. Oroitarazi behar diegu bereiztezinak diren hiru lurralde historiko hauek osatzen dutela ipar Euskal Herria : Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoa. Lurralde kontzeptua atsulutuki atxiki behar dugu. Beraz, MAB eskualdea komunitate bihurtu

nahi dutenak oker daude. Handinahi eskasagatik, euskal departamendua eta Euskal Herriko unibertsitatearen aurka dira ere.

Hori dela eta, proposatu dut nigarraren kulturatik arduraren kulturara pasa gaitezen : hautetsiak gai ez badira gure eskaerei erantzuteko, geroa gure gain hartu behar dugu. Formakuntza eta unibertsitateari dagokionez, ondoan daukaguna bahatu behar dugu : Paue eta Bordaleko unibertsitateak, bistan dena, bai eta hego Euskal Herriko unibertsitateak ere. Pentsamoldeak astindu behar ditugu, eta hegoalderantz begiratu. Behar ditugun formakuntzak Donostian, Iruñean edo Bilbon egiteko aukera badugu, zergatik ez joan hara ? Badugu xantza izigarri bat ondo-ondoan dagoen hego Euskal Herria, Europako eskualderik dinamikoenetako bat da. Segitu behar ote dugu nigar egiten, ala erabakiak hartu eta aitzina joan, gure begien aurrean sortzen ari den "euro-eskualde" honen eraketan parte hartuz ? Partzuer batek aitortu du eztabaida gehienak frantsesez entzuteak pena eman ziola, eta ohartarazi digu "kultura" hitzaren gibelean ikusmolde ezberdinak ezkuta daitezkeela, norberak berea izanik. Zenbait enpresarientzat adibidez, kirol taldeak laguntzea euskal kultura sustatzea da. Nahiz kirola giza-ekintza garrantzitsua izan, ez da baitezpada kulturaren osagai.

Azkenik, C.F.D.T. sindikatako ordezkariak enpresa komiteen lanaren ahulezia azpimarratu du, haren ustez dauzkaten poderea eta diru-iturriak gaizki erabiltzen dituztelako. Ipar Euskal Herriko enpresa komite guzietan egiazko kultura politika bat izanen balute, ez da dudarik gauzak aldatuko liratekeela.

Euskal kultura

XXI. mendearen atarian

Chantal Mornet soziologoak aurkeztua
Elkarteei buruz egin galdaketa-ikerketa (*)

(*) "Euskal kultura XXI. mendearen atarian" - 1999ko ikerketaren emaitzak »
dokumentua
Euskal kultur erakundeak aurki daiteke

Elkarteei igorri 80 galdaketetarik berrogei bat errezipitu dugu. Galdaketa bakoitzean bi parte ziren : lehen partean, elkartearen "nortasun agiria" ; bigarren partean, galdera zabalagoak euskal kulturak dauzkan zailtasunak, proiektuak eta gerorako norabideei buruz. Sail ezberdinetako elkartek erantzun dute : Chimeres antzerkitaldeak, Pariseko Euskal Etxeak, Gure irriatiak, Piztu elkarteak, Izpegi taldeak, A.E.K.-k, besteak beste.

1 - Elkarteak idenrifikatzeko ezaugarriak

Kokalekua

Erantzun duten elkarten laurdena Lapurdi barnekaldean kokatua da eta beste laurdena Baxe-Nafarroan eta Xiberoan dagoelarik. Erantzunen erdia kostaldeko elkartetatik heldu da, bereziki BAB-tik. Parisetik ere elkarte batek erantzun digu.

Ekintzak

Elkarten ekintzek sail ezberdinak hunkitzen dituzte : lehendabizi euskara, eta kultura orokorra (kantua, dantza, musika...). Elkarte bereziak ere badira, hala nola euskal irriatiak, edo bertsolaritza bultzatzen duten elkarteak. Azkenik, batzuk kulturatik kanpoko sailetan ari dira, ekonomian edo giza sailean, besteak beste.

Helburua

Gehienen helburua euskal kulturaren bultzatzea eta garatzea da. Elkarte anitzek sail berezi bat hautatzen dute (musika, kantua...). Zenbait elkartek eskualde bati ematen diote lehentasuna : izan daiteke herria, bailara edo kantonamendua. Bestek, pertsonaren inguruan antolatzen dute iharduera.

Eragin-eremu geografikoa

Kasu gehienetan elkarten eragina bertakoa da : elkarten ekintzek herria, kantonamendua edo bailara hunkitzen dute. Batzutan eragin zabalagoa izan dezakete, ipar Euskal Herrira, Euskal Henri osora, Frantziara, eta bi kasutan, mundura hedaturik.

Elkarten neurria

Ikerketak kontutan hartu dituen abantzu elkarte gehienek ehun kide baino gehiago daukate, asko baita. Haietarik lauk 500 kide baino gehiago daukate.

Kideen jatorria

Bertakoa da. Usu kanpotiarrentzat, elkarte bertako kulturaren murgiltzeko tokia izan daiteke. Hemen aldiz, kideen jatorria bertakoa denez, pentsa dezakegu elkarte batean parte hartzeak ez duela beste herrialde edo kulturetan duen erranahi bera. Hemen, nortasuna baieztatzeko urratsa da, beste nonbait integrazioarako ahalegina delarik.

Kideen adina

Batez besteko adina 36 eta 55 urte artean da. Horrek erran nahi du elkarte guttik gazteak hunkitzen dituela eta elkarte horiek ez direla erreberitzen, edo oso gutti. Gurasoek ez dituzte, behar bada, haurrak bultzatu halako engaiamendua hartzera. Halaber, ikerketa honen bukaeran ikusiko dugun bezala, gazteentzat euskal kultura biziarazteak ez du baitezpada erran nahi elkarteek antolatu ekintzetan parte hartzea.

2 - Elkartearen funtzionamendua

Ekintzen banaketa

Banaketa aski orekatua da ekintza ezberdin hauen artean : ikusgarrien antolaketa eta irakaskuntza, kultur animazioa eta hizkuntzari buruzko ikerketa, besteak beste. Hurbilagotik begiratzen badugu, honelako gauzak atxeman ditzakegu : mugaz bi aldeetako ikastaroak, formakuntzak enplegurako formakuntzak etab.... Iduritzen zait Euskal kultur erakundeko kide diren zenbait elkarteek usaiatzko mugaz gainditzen dituztela bestelako ekintzak antolatzeko.

Kideen partehartzea

Elkarteei galdetu diegu ea partehartze hori mantendu, sendotu ala behehitu zen. 22 elkarteek erantzun dute mantentzen dela. Mantentze hori aztertze galdetu diegu : hor berriz aurkitzen dugu gorago aipatu erreberitze eskasa. Arrazoin ezberdinak aitzinatuak dira funtzionamenduaren pisua, eta ingurumena bereziki. Beraz, erran daiteke segida ez dela batere segurtatua.

Kideen erreberitzea

Kideen antzintasuna elkartearen hein-berekoa da. Horrek baieztatzen du belaunaldi kontua dugula. Komunikazioari dagokionez, iduri du elkarteek komunikabideak ongi menperatzen dituztela eta komunikabide ezberdinak baliatzen dituztela. Beraz, erreberitzeko zailtasuna bada, ez du zer ikusirik komunikazioarekin. Ez da ere belaunaldien arteko ikusmolde arazo batengatik.

Bezero zorrotza ala ekoizpen ezegokia ?

Jendeari eskatu diogu erreberritzearen zailtasuna aztertzea entseiatzeko. Erantzun hauek erdietsi ditugu :

- ekintzak zorrotzeiak dira erakargarri izateko (adibidez, bertsolaritza sailean)
- elkarte batzuk ez dizkiete gazteei ateak zabaldu ; "lagun artean" gelditu dira.
- elkarte batean parte hartzea engaiamendua da, denbora eta disponibilitate handia eskatzen duena.

Oztopoak

Hastapenean, diru eta administrazio oztopoak dira. Gero, ezagutza eskasa.

Elkarteen behar berriak

Elkarteen beharrak alor hauetan kokatzen dira : formakuntza, pedagogia, informatika eta teknika ahalbideak. Aholkuak behar lituzkete komunikazio, administrazio eta pedagogia lanetan. Itzulpen, hedapen eta informatikarako tresna pedagogikoak eskatzen dituzte. Azkenik, laguntza behar dute noizbehinka haien egitasmoak erreberritu, publiko ezberdinak komentzitu, eta publiko berriak hunkitzeko. Ez da dudarik laguntza metodologikoa behar dutela.

3 - Euskararekiko harremana

Elkartean erabili hizkuntzak

Barneko komunikazioa (ahozkoa nahiz idatzia) frantsesez egiten da gehienetan. Kanpoari buruz komunikatzeko, euskara gehiago erabilia da. Aldiz, euskara gutti baliatua da gutunak eta biltzarre-agerbideak idazteko.

4 - Kultur egiturekiko harremanak

Euskal kultur erakundeak duen "irudia"

Euskal kultur erakundeari dagokionez, elkarteek azpimarratzen dute euskal kulturaren garapena sustatzen eta euskara bereziki laguntzen duela, promozioa, hedapena, sorkuntza eta animazioa bultzatuz. Baina elkarteek laguntza gehiago espero dute diru eta teknika mailan, bai eta Erakundeak elkarten arteko koordinaketa, komunikazioa eta elkartrukatzeak sustenga ditzan ere.

Azken hiru urtetako ekintzak

E.K.E.k bururatu ekintzarik ohargarrienak hauek izan dira : Irisarriko ondarearen egunak eta "Euskararen hatsa" erakusketa, ondarearen gidaliburua, Kantuketan programa, bertsolaritzaren promozioa, Xirrixta haurrentzako aldizkaria, herrien euskal izenak telefono-aurkibidean, elkartei ekarri sustengua, kreaioari eta irratiei eman laguntza, seinaleta elebiduna, Lurralde Antolaketarako Eskeman eta Hizkuntza Kontseilurako proiektuan parte hartzea.

Elkartek igurikatu eginkizunak

Gehienek bai formakuntza, bai kreazioa eta hedapenarako laguntzak espero dituzte.

Beste hiru kultur etxeen eginkizunak (Uhaitza, Haize-Berri, Eihartzea)

Hor ere kultur hedapena eta elkarteen arteko koordinaketa berriz aurkitzen ditugu. Bestalde, kultur etxe horiek tokiko garapenaren parte direnez, eskatzen zaie ekmtzak eta proiektuak bakoitzari dagokion lurraldean gehiago "erroztatzeko".

Barnekaldeko hiru kultur etxeen beharrak

Euskal kultur erakundearentzat bezala, hiru kultur etxeen beharrak hauexek dira : musutruk ari diren laguntzaile eta profesionalen formakuntza eta proiektu berrietarako sustengua.

Euskal Konfederazioak duen "irudia"

Konfederakuntzak duen elkarteen arteko koordinaketa eta egituraketarako funtzioa ongi ulertua da. Jendearen iritziz, erakundeekin harreman berriak sortzeko bitartekari izan daiteke ere. Azkenik, bere funtziorik nagusiena euskara sustengatzea da, bizi publikoan agerian izan dadin, eta Europa mailan Euskaldunen presentzia segurtatzeko.

Aldaketa orokorrak

Galdekatu pertsoneri iduritzen zaie gauzak aitzinatzen direla. Zenbait proiektu gorpuztu dira, euskararen ezagutzarekin batera. Alta, ez da dudarik alor horretan frantses instituzioek oraindik asko dutela egiteko. Aitzinatu diren egitasmoak hauexek dira : euskal irratiak, Euskal Telebista, seinaleta elebiduna, euskararen irakaskuntza (AEK-k emandako kurtxoak, Seaska, lizeo elebiduna, euskarazko CAPES-a etab...). Badirudi euskal kultura gaurkotuago bati buruz goazela, agian "folklorizazioa"ren arriskua apalduko duena. Euskal kultur erakundea tresna bat izan daiteke partaide guzi horiei konfiantza emateko.

Egitura publikoekiko harremanak

Harreman horiek maizegi araugabekoak dira, eta "interesatuak", erran nahi baita hauteskunderi lotuak. Elkarteei iduritzen zaie interes bereziak dituzten pertsona edo erakunde batzuk "erabiltzen" dituztela, komeni zaienean. Baina horrek ez ditu gauzak aitzinarazten. Gainera, tokiko egiturek harreman guttiegi dute instituzioekin diru mailan. Hori dela eta, elkarte batzuk "lintxatze" sentimendua pairatzen dute. Azkenik, bai euskal kultura, bai frantses kulturaren dagokienez, iduritzen zaie ez dela egiatzko egitasmorik, ez barnekaldean, ez eta hirietan ere.

Presa handiko neurriak

Hizkuntza lehenbailehen salbatu behar da, alde batetik ahalbide gehiago erdietsiz (pertsonek nahiz materialek), bestalde irakaskuntza garatuz, euskal kultura eskola guzietara hedatuz, elebitasuna zabalduz, eta instituzioetan aldaketak bultzatuz.

5 - Kanpoko harremanak

Unibertsaltasuna

Hemengo elkarteek beste herrialde, eskualde eta elkarteekin dauzkaten harremanak harrizkoak dira, zinez tinkoak eta aberatsak baitira. Euskal Herri osoko elkarteekin elkartrukatzeko egiten badituzte eta kezka amankomunak badauzkate ere, Europa eta munduko elkarteekin dituzte kontaktuak. Dударik gabe fenomeno horrek munduan zehar sakabanatua den euskal diasporarekin du zerikusia.

Ezagutza eskasa

Galdera zen ea kazetariak eta intelektualek elkarrekin lanari ematen dioten oihartzuna nahikoa den. Erantzunak argi erakusten dute elkarteek interes eskasa sentitzen dutela kazetari eta intelektualengandik.

Kanpoko harremanen nolakotasuna

Elkarteek baliatu komunikabideak mota guzizkoak dira. Ipar Euskal Herriko eta Europako elkarteek gutunez eta telefonoz trukatzeko dituzte informazioak. Batzutan, bilkurak antolatzen dituzte, bai eta egitasmo iraunkorrak eratzen ere, hala nola partaidetzak, ikastaroak, kontzertuak... Elkarte askok Internet sarea erabiltzen dute, ez bakarrik posta elektronikorengatik. Internet informazio iturri eta lan tresna gisa bahatzen dute, adibidez kontratuak izenpetzeko eta programak bidali eta trukatzeko. Aldiz, Internet ez dute inolara ere sorkuntzarako euskarriztat hartzen.

Euskal kultura munduarentzat eta mundura esportatu

Galdaketa honi erantzun dion jendearen iritziz, euskal kultura hain da aberatsa, sendoa eta berezia non mundializazioak ezin baitio kalterik egin. Beraz, kanpoko harremanak ez badira aski zabalak ere, hor dira eta garrantzi handia dute. Jendea komentatzen da euskal kultura irekitzen eta irekiko dela beste kulturekiko harremanak baditu. Hetsia geldituko balitz, hiltzera kondenatua izanen litzateke. Ezagutua izatea, ezagutza erdiestea da. Beraz, ideia hauxe da : bizirik gaude besteen begiradan bizi bagara. Bestearen begiradarik gabe, ez da kreatorik, kulturak ez du zilegitzerik.

6 - Nolako euskal kultura XXI. menderako ?

Hizkuntzaren garrantzia

Elkarteei eskatu diegu alde batetik, euskal kultura hiru hitzetan definitzeko ; bestalde, euskal kultura sinbolizatzen ez duten beste hiru hitz emateko.

Kultura definitzeko maizenik aipatuak izan diren hitzak hauek dira : "hizkuntza", "sustraiak", "festa zaletasuna", "aberastasuna", "sorkuntza", "herrialdea", "herrikoa". Euskal kultura sinbolizatzen ez duten hitzak hauek dira : "folklore", "folklorizazio", "turistikoa", "komertziala", "azalekoa", "hetsia", "sektarioa", "bazterten duena". Euskal kultura ez da "elitista", ez da "hila".

Euskaldun izatearen gogo

"Zer erran nahi du Euskaldun izatea ?" : galdera honi eman erantzunik arruntenak hauek izan dira : "Euskaldun izateko gogo da" eta "euskaraz mintzatzea da". Beraz, galdekatu pertsonen ustez, Euskaldun izatea ez da euskal herritarra izatea, ez eta euskal izena edo euskal arbasoak ukaitea ere. Beste erantzunen artean, hauek aurkitu ditugu : Euskaldun izatea "xoriak kantatzen duen bezala", "Euskaldun gisan bizi nahi", "Euskaldun sentitzea", "geroaz axola izatea", "euskal kultura osoari interesa erakustea", "euskal kulturaren sartzeko ahaleginak egitea".

Euskal kulturaren indarrik nagusienak

Uniformizazioa eta berezitasunaren artean ez da oposizioirik. Iduri du euskal kulturaren aberastasuna nahikoa dela unibertsaltasunari aurre egiteko, aniztasunean, mugimenduan eta modetan murgiltzeko. Azkenik, euskal kulturaren indarrik nagusienak hauek dira : berezitasuna, orijinaltasuna, aniztasuna. Mundializazioak ez dio euskal kulturari kalterik egiten, bizirik irauteko aukera berriak emanen baizik.

Euskaldun izatea : indarra ala ahulezia ?

Zalantzarik gabe Euskaldun izatea abantaila da, hauskorra den indarra ere. Konplexuak eta arriskuak oraindik gelditzen dira, "hertsidura doktrinarioa" eta "tradizionalismoa" bereziki. Arriskua izan liteke "munduaren zilborra sentitzea". Irakurri dudana beste erantzun bat aipatu nahi nuke : "ez dakit nora noan, baina nahi nuke nire ondorengoek nondik datozen jakitea". Badirudi Euskaldunek historia eta geroari begira egin beharra bete nahi dutela, bizirik dagoen kultura baten iraganaren errespetuan, sorkuntza sustatzeko asmoz.

Kulturaren eta ekonomiaren arteko hurbilketa

Kultura eta ekonomiaren arteko hurbilketak ideiarik ausartenak eta asmotsuenak sortarazten ditu. Hurbilketa mota guztiak asmatzekoak dira : lantegi txikiak, enpresa handiak, zerbitzuak eta komertzioaren sarean bereizki. Horrela partaidetza berriak, hitzarmenak, zerbitzu eta materiale trukeak, formakuntza amankomunak, elkartasunak sor daitezke. Erantzun duten pertsonentzat, errentagarritasuna eta kultura ez dira aurkakoak : bata ez du bestea baztertzen. Aise egiten ditugun bereizkuntza haietako bat da, baina polikinaka desagertu liteke, eta gisa guziz, gogoetatu beharko litzatekeen gaia da.

Barnekaldearen eta kostaldearen arteko hurbilketa

Hurbildu behar diren bi mundu dira. Elkarre askok erraten dute euskal kulturak frantses kulturak daukan butxetaren hamarreko bata hartuko balu, urrats handiak emanen litzatekeela. Desoreka inportanteak daude, diru eta giza-baliabide mailan. Horrek euskal kulturaren memoriaren arazoa pausatzen du ere : ez ote da desagertzen ari hirietan ? Hala izan en balitz, euskal kultura bere osotasunean desagertuko litzateke.

Euskara arrisku handian

Egoera horri aurre egiteko, elkarrekin aterabideak proposatzen dituzte. Lehendabizi, euskara eta euskal kultura hobeki ezagutaraztea, gurasoentzako eta haurrentzako hasiz. Elkarrekin proposatzen dute euskal kulturaz egin saioak eskola programetan sartzeko. Beste aukera herriko etxeekin elkarlana egitea da, zenbait erakunderen laguntzarekin. Biarritz Culture etsenplutzat hartua izan da barnekaldeko egiturekin partaidetza bat eratzen hasi delako. Zergatik ez luza "le Temps d'Aimer" festibala barnekaldeko herri batera, eta erakusketak barnekaldean ibilaraz ?

Euskara modu "herrikoian" erabiltzea

Ekonomia eta kulturaren arteko harremanaz mintzatu ondoren, interesgarria zen beste ideia batera iristea, hau da, euskara modu "herrikoian" erabiltzea. Erran nahi baita Euskaldunek "euskaraz mintzatzera ausartzeko", "euskaraz nigar egiteko" eta "inbidia sortzeko" gai izan behar luketeela. Euskaraz hitz egiteak pribilegio bihurtuko luke, hain mirezgarri eta erakargarri non inbidia sortuko bailuke. Galdezkatu pertsonen arabera, euskara eta euskal kulturaz eskola eta erakustokietatik kanpo mintza daiteke, adibidez lantegietan, ostatuetan, zinemetan, supermerkatuetan. Baina euskara eta euskal kulturaren hedapena laguntzeko, ez da dudarik nahikaria ezinbestekoa dela.

Gazteak eta euskal kultura

Gazte gutti dago elkarteetan. Gazte gutti erakustokietan ere. Aldiz, gazteek festa egiten eta musika entzuten dute. Euskal Herria Zuzenean, Herri-Urrats, Korrika, edo Kantu Txapelketa bezalako elgarretaratzeek munta badute gazteentzat. Dantzan egiten dute ere : euskal rocka eta mutxikoak, besteak beste. Ez ditugu baitezpada aurkitzen mugimendu politiko nagusietan, aide batetik ez baitituzte gustuko, bestalde mugimendu haiengandik "berreskuratze" arriskua sumatzen baitute. Hala ere, euskal kulturaren bizian parte hartzen dute, haien moduan : lauburua eraman edo ikurriña agerian emanez. Erantzun duten langile gazteek - 25 urtetik beherakoak - aitortu dute gurasoen bideari ez diotela jarraiki nahi eta beste zerbait egiteko gogoia dutela.

7 - Kultur ekintzen egituraketa

Batasuna, partaidetza, elkartasunaren beharra

Gehien agertu diren hitzak : "batasuna", "partaideen arteko batasuna", "elkarteen arteko batasuna", "elkartasun zabalagoak eraginkorrago izateko instituzioen aurrean.

Profesionalisazioa eta kultura

Elkarteen gustuko, ez da oposiziorik bi kontzeptu hauen artean. Gainera, kultur ekintzen egituraketa formakuntzatik pasako da, bai eta kostaldea eta barnekaldearen arteko hurbilketatik ere.

Publikoa hezi edo kalitatea segurtatu ?

Aide horretatik, ikusmolde ezberdinak izan ditugu. Batzuek diote : "ez dugu publikoa hezi behar, zeren atsulutuki nahi badugu publikoarekin bat egin, ez baitugu baitezpada kreaizioa lagunduko. Besteak diote : "Bai, publikoa hezi behar dugu, antzerki sailean adibidez. Bestela, antzerki parte handi bat kartoinean geldituko da." Proposatua izan dena ere, gogoan dauzkagun kulturaren irudikapenak aztertzea. Pentsa dezakegu ere kulturak zerikusia duela bizimoduak, eguneroko bizia eta usaiekin, eta kulturak gazteak eramaten dituela gauza ezberdinez jabetzera euskal kulturari.

8 - Gerorako bideak

Gizartearen mugimendua segitzeko desioa

Elkarreek proiektu anitz dute. Zinez baikorrak dira, gizartearen mugimenduetara egokitzeko prest. Haien inguruan gertatzen diren aldaketak interes handiz segitu nahi dituzte, batasun, sormen eta irekidura izpiritu batean.

Politikaren arazoa

Bistakoa da ez dela ezer gertatuko indar politikoen sustengurik gabe. Lehendabizi, elkarrekin espero dituzte hurbileko erabaki iraunkorrak, tokiko hautetsiekin batura harturik. Legearen garrantzia eta irekiduraren beharra azpimarraruz, kostaldea nahiz barnekalderako proiektu orokorrek eskatzen dituzte. Azkenik, diru-ahalbide onesgarriak igurikatzen dituzte. Erantzun askok aipatzen dute instituzioen arazoa eta euskal departamenduaren sortzea.

Bukatuko dut irakurri dudana adierazgarri den erranaldi honekin : "Ez genituzke inoiz berriro euskal kultura eta euskalduna ez den kultura bereizi behar."

Lan-taldeen bilduma orokorra

Michel Veunac-ek egin

1 - Euskal kulturak hizkuntza oinarri duela baitezpada kontsideratu behar du, euskara bere sinboloa eta ekintzarako basea baita

Baieztapen hau premiatsua da Baina ez du erran nahi euskal kultura euskarari mugatua dela, baizik eta euskarari esker eta euskararekin bizirik iraunen duela. Erran genezake ere euskararik gabe ez dela deus izanen. Hizkuntza bektore nagusia, menderatzailea, ezinbestekoa da hiru arrazoin hauengatik :

- euskal kultura sortzen, adierazten, eta transmititzen du.
- nortasun baieztapenaren lehen faktorea da.
- euskaldun izatearen desioa adierazten du.

Erran nahi baita euskalduntasunaren adierazpena hizkuntzarekiko amodio harrernanetik pasatzen dela lehenbizi.

Arrazoin hauengatik, euskal kultura derrigorrez bere hizkuntzan bereziki funtsatu eta oinarritzen da.

2 - Euskal kultura k mugimendutara sartu behar du

Kulturak, bai aniztasunari, bai zirikatzen, astintzen, galdekatzen, eta hein batean akuilatzen duen unibertsaltasunari aurre egin behar die. Horrek erran nahi du euskal kulturak arriskuak hartu behar dituela, "santutegi" ez bihurtzeko.

Adibide bat emana izan da : hiriaren aniztasunarena, kosmopolitismoz, arau gabetasunez, bestelakotasunez eta higikortasunez egina. Hiria laborategi ona da euskal kulturak probak egin ditzan. Horrela frogatuko du zertarako den gai.

3 - Euskal kulturak aurkitzen dituen oztopoak

Kanpoko oztopoak

Kultura merkatuak eta komunikabeek inposatzen duten presionearekin zerikusia duten oztopoak dira.

Barneko oztopoak

Euskal kulturak bere burua aurrez aurre begiratzea onartu behar du. Alde horretatik, kultur egileek haien batasunaz eta haien adierazpen artistikoaren esanahiaz hausnarketa sakon bat eraman behar dute. Honelako galdera sinpleak, baina premiazkoak argitu behar dituzte : zergatik gara artistak ?

4 - Euskal kultura eta garapen ekonomikoa

"Euskal kulturak bultzatzen ote du garapen ekonomikoa ?" Galdera honi erantzuteko zalantzak ditugu, bide berean baietz eta ezetz erantzuteko gogoia baitugu.

- Bai : zeren erakargarria izanik, euskal kulturak bultza baititzake kanpoko enpresariak hemen finkatzera. Kulturarekin zer ikusia duen bizi kalitatea azpimarratua izan da.

- Bai : zeren enpresa bat sortzeko erabakia eta nortasun sentimenduaren artean harreman bat baitago. Aipatu etsenplu famatuek frogatu dute enpresari batzuk bazekitela enpresari hobeak eta indartsuagoak izanen zirela hemen, haien sustraiekin hemen zutelako hitzordua.

Aldiberean, galdera honi hauxe erantzun nahi genioke : "hobeki egin lezake". Zeren euskalduntasuna eta egitasmo ekonomikoaren arteko lotura ez baita sistematikoa, gazteengan bereziki. Kulturak garapen ekonomikoa laguntzen ahal edo lagundu behar badu, halaber ekonomiak kultura laguntzen ahal eta lagundu behar du. Kultura eta ekonomiaren arteko loturak interaktiboa izan behar du.

5 - Nigarrik ez. ekintzak baizik

Bosgarren puntua lan-taldeek aitzinatu aterabide bat da. Pausatu galdera hau zen : "nola bultzatu euskal kultur biziago eta indartsuago bat, mende berriaren atarian ?"

Hizkuntzaren alde aritzea

Hizkuntza babestua, sustengatua izan behar da, instituzioen laguntzak martxan ezarriz.

Kultura instituzionalizatzea

Erran nahi baita egituretan bermatu ahal izatea. Garrantzitsua da bai hizkuntzarentzat, bai kultura, kultur ekoizpena eta kreaioarentzat ere. Hizkuntza Kontseiluaren proiektua eta Euskal kultur erakundearen lana aipatuak izan dira, bai eta euskal kantarako eskola baten egitasmoa ere. Egitura eraginkorrek eta identifikagarriak sortu behar dira.

Kultur eragileen profesionalizazioa

Ezinbestekoa da. Aterabide hau lan talde guzietan eta Chantal Mornet-en ikerketak aipatu dute.

Lankidetzak, harremanak, partaidetzak kontratatzea

Euskal kulturaren eragileek ezagutzen dute elgar, baina ez dute beti elgar laguntzen. Horregatik, lankidetzak eta partaidetzak berriak beharrezkoak dira. Kultur eragileen arteko elkarrizketa ezinbestekoa da. Eta asko ekar lezake ere beste kultur ekoizleekiko elkarrizketak. Hemen azaltzen zaigu irekiduraren premia eta besteekiko komunikazioaren beharra.

Engaiamenduak hartzea

Egileek ausart izan behar dute. Gehiago engaiatu behar dute podere eta erabaki tokiei buruz.

Hitz batez, modernitateak, aniztasunak, oztopoek, eta zailtasunek sortzen dituzten desafioen aurrean, euskal kulturaren indarrak hauek dira : hizkuntzan oinarritua, ausarta, kementsua, engaiatua eta profesionalizatua izatea. Bere eragileak mugimendu horren lehen bultzatzaile izan daitezela.

Lan-taldeen bilduma orokorraren ondotik...

Jean-Baptiste Etcheverry-k egina

Gogoetaldiak abiatu baino lehen, galdera hauxe zen : ea euskaldun bezala bizi ote garen ala ez? Gogoetak egin ondoan, iduritzen zait galdera hau gainditu dugula. Ez gaude izatezko arazo baten aitzinean, garapen eta profesionalizazio arazo baten aurrean baizik. Bai eta utopia baten parean ere.

Garapen arazoak

Garapen fase batean gaude. Gogoetaldiaren hasieran, duda mudatan ginen, gutaz ez seguru. Orain, erraiten dugu mundializazioak ez gaituela izutzen, gure nortasuna baieztatzeko parada ezin hobea izanen baita. Erran nahi baita Euskaldunak izateaz gain, garapen horrek ez gaituela izitzen beste garapen motekin parekatzerakoan.

Gure utopia

Lan-talde horien bidez, baieztatu dugu inoiz baino Euskaldunagoak garela, eta inoiz baino gehiago hitz egiten dugula euskaraz. Ez bada aski ere, aitzinatzen ari gara. Gu garenez, mundura irekiko gara, garena, egin dezakeguna, besteei ekar eta besteengan har dezakeguna erakutsiz. Horretan da utopia. Alde batetik, gure baitan aski indartsu izan behar dugu bestearengana joateko ; bestalde, tokiko podereei eta instituzioei eskatu behar diegu euskal kulturaren aldeko politika bat, politika ez baita kultur egileen kontua, gizarte eta politikariena baizik.

Kalifikazioa eta profesionalizazioa

Gai honek kezkatzen ditu kultur eragileak. Galdera hauek egiten dituzte : "Aski profesionalak ote gara ? Gure jakiduria aski sendoa ote da ?" Galdera hauek azpimarratu profesionalizazioaren beharra utopiarekin batera doa, naturalki. Aldiberean, segurtamen, beldur eta zalantza asko baztertzeko eskatzen digu. Erran nahi du ere izan eta egiteko molde berriak, bai eta hedapen nahiz komertzializazio bestelako moduak gureganatu beharko ditugula.

Bukaera gisa, Migelangelo zizelkariaren erranaldi bat aipatu nahi nuke. Norbaitek hauxe galdetu zion : "Zer da artea ?" Eta erantzun zuen : "Estatua marmolezko blokean da. Ikusteko, traba egiten duen guzia kendu behar da." Hauxe da gura lana : estatua gu gara ; ikusteko eta ikusiak izateko tratatzen den guzia kendu behar dugu.

Azken hitza

**Pantxoa ETCHEGOIN,
Euskal kultur erakundeko zuzendariak egina**

Pertsonalki, gogoetaldi hauek poztu naute, aide batetik bide berriak urratu dituztelako, bestetik kultura, ekonomia nahiz sozial munduko eragileentzat elgar ezagutzeko aukera izan baita.

Alabainan, bardako mintzaldiak 250 pertsona bildu ditu Baionako Merkataritza Ganbaran. Bertan elkartu den jendearentzat - pertsona adituak, alde batetik, euskara eta euskal kultura bizi duen jendea, bestetik - parada ezinhobea izan da eztabaidan eta hausnarketan parte hartzeko.

Gaurko mintegiek ere arrakasta handia lortu dute. Lan-talde bakoitzak alor ezberdinetako 20 / 30 pertsona inguru bildu ditu, Uztaritzeko Lapurdi zentroan. Partzuer guzi horiek elgar ezagutzeko aukera izan dute, gogoetak eta esperientziak trukatur. Horrela ditugu sail ezberdinak apartatzen dituzten "paretak" hautsiko, eta pertsonen arteko komunikazioa erraztuko.

Egun hauen ondotik, espero dut irakaskuntza, ekonomia edo sozial sailletako ordezkariak lekukoa hartuko dutela hausnarketa lan horri jarraipena emateko. Bistan dena, Euskal kultur erakundeak parte hartuko duela antolatuak izanen diren gogoetaldi desberdinetan. Eta pentsatzea egitea denez, gogoetaldi hauetan egin proposamenetatik abiatuz, alhan ezarriko ditugun ekintza zehatzak 2000.eraiko kultur egitasmoan azalduko ditugu. Argi da gogoetaldietan aipatu gai guziak ez ditugula bapatean gorpuzten ahalko. Hala ere, erran genezake bost lehentasun jada azaltzen direla.

1 - Euskararen aldeko hizkuntza politika baten beharra

Euskararen presentzia bizi publikoan segurtatzeko oraindik lan asko dugu egiteko. Horretarako, ez da dudarik Euskal kultur erakundeak lehenbailehen hartu behar duela erabaki bat bere baitan euskaraz arduratzen duen lanpostua sendotzeko. Hizkuntza Kontseilua oraino igurikatzen dugunez, uste dut anarteko erabakiak hartu behar ditugula euskararen alorrean gertatzen diren presa handiko arazoei erantzuteko.

2 - Kultur eragileen formakuntza eta egituraketa

Dudarik gabe, gogoetaldi hauetan maizenik aipatua izan den gaia dugu hau. Euskal kultur erakundeak alor honetan indar bereziak egingen ditu.

3 - Partaidetzen garapena

Ahalegin handiak egin behar ditugu partaidetzak sortzeko kultur eragileen artean alde batetik, kultura saila eta ekonomia munduaren artean bestetik, bai eta hedapenaz arduratzen diren erakundeekin berekin. "Euskal kultura eta hirigintza" lan-taldeak aitzinatu duen gizarte zibilarekiko topaketak antolatzeko ideia interesgarria iduritu zait. Alde horretatik, Euskal kultur erakundea euskarri izan daiteke, baldintza honekin : hurbileko lana izan beharko da, hirietan eta auzotegietan ari direnek eta direnekin eramana.

4 - Euskal kulturaren hobeki ezagutaraztea

Kultur hedapena egiten badugu eskoletan, auzotegietan, kultur guneeetan, konbentzitua naiz euskal kultura hobeki ezagutaraz dezakegula, publiko berriak hunkitzen ditugula. Harremanen azkartzeko modu bat izan daiteke, aldi berean gure kultura kanpoko eragileren kulturarekin gurutzatuz.

5 - Euskal kultura komunikazio teknologia berrietan sartzea

Euskal kulturaren sormena sar daiteke teknologia berrietan, besteak beste kanpoko kulturekilako harremanak sortzeko asmoarekin.

Norabide guzi hauek datozen egunetan aztertu eta zehaztu beharko ditugu. Euskal kulturak hiriarekin daukan harremana bezalako gai batzuk bertan landuak izatea merezi dute.

Urhentzeko, lan-taldeetan parte hartu duten pertsona guziak eskertzen ditut, bai eta gogoetaldi hauek antolatzen lagundu gaituztenak ere.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiot Euskal kultur erakundearen lan taldeari, ekitaldi honen antolaketarako egin duen lanarentzat. Eskerrak ere gogoetaldiak errezibitzeko bere gela guziak prestatu dizkigun Uztaritzeko herriko etxeari.